



**OFF FESTIVAL**

# BBK OFF FESTIVAL

Mugako arte eszenikoen jaialdia.

## DEIALDIAREN OINARRIAK

Beren proposamenetan arriskuak hartzen dituzten eta lengoia eszeniko eta dramaturgia berrien aldeko apustua egiten duten artistei eta konpainiei zuzenduta dago deialdi hau.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- 1.** Proposamenek 2 orduko iraupena izango dute gehienez.
- 2.** Obrak uztailaren 5etik 11ra bitartean erakutsiko dira jendaurrean.
- 3.** Artista edo talde bakoitzak gehienez ere bi proposamen aurkeztu ahal izango ditu deialdira, eta bakarra izango da hautagarria.
- 4.** BBK Salak gutxienez 600 €ko katxet finkoa ordainduko du, eta ordubete baino gehiagoko obren kasuan, txarteldegian batutakoaren % 100. Obra laburren kasuan, aldi berean erakutsiko direlarik, 600 € + txarteldegian batutakoaren % 100eko proposamena egingo da, saio bakoitzeko gehienez 3 proposamenen artean banatzeko.
- 5.** BBK Sala arduratuko da beharizan teknikoez, baita komunikazio eta zabalkundeaz ere Salaren ohiko euskarrietan.
- 6.** BBK Salak proposamenen beharizan teknikoak betetzeko konpromisoa hartzen du, hautatuei emango zaien fitxa tekniko estandar baten arabera. Ikuskizuna garatzeko edozein behar gehigarri konpainiaren ardura izango da eskusiboki.

- 7.** Eszenografia, jantziak, tresneria eta obraren beste elementu batzuk behar bezala bildu edo enbalatzea konpainia bakoitzaren ardura izango da.
- 8.** Obretako elementuren bat kaltetu, galdu edo lapurtuz gero, BBK Salak ez du ardura bere gain hartuko.
- 9.** Proposamenak formatu digitalean aurkeztuko dira 2021eko maiatzaren 31ra arte, helbide elektronikoa honetan: [bbkoff@bbk.eus](mailto:bbkoff@bbk.eus) formulario honen bidez (pdf formularioa edo gure webgunean eskuragarri). Mezu elektronikoa 'gaian' honako hau adierazi beharko da: BBK OFF 2021 proposamenak.
- 10.** Programazio-taldea arduratuko da gehienez iraupen luzeko zazpi (7) proposamen aukeratzeaz, eta sei (6) obra laburren kasuan.
- 11.** Programazio-taldeak eskaerak baloratuko ditu, irizpide hauek kontuan hartuta, besteak beste:
  - a. Proposamenaren kalitate, balio artistiko eta zorrotasuna.
  - b. Genero-berdintasunarekiko konpromisoa.
  - c. Euskararen normalizazioarekiko konpromisoa.
  - d. Eskatzailearen ibilbide artistikoa.
  - e. Proposamenaren bideragarritasun teknikoa BBK Salan.
  - f. Proposamenaren berrikuntza-maila.
- 12.** Azken aukeraketaren ostean, konpainia eta/edo artista guztiekin harremanetan jarriko gara emaitzaren berri emateko.
- 13.** BBK Salak beretzat gordetzen du deialdia osorik edo zati batean hutsik deklaratzeko eskubidea.
- 14.** Oinarri hauetan aipatzen den guztia eten, atzeratu edo edozein unetan aldatu egingo da ezinbesteko arrazoiak, gure kode zibilean tasatutakoak, gertatzen badira eta, bereziki, ezinbesteko arrazoitzat hartzen direnak, pandemia-egoerak edo horien berragerraldiak, baita horiek direla-eta ematen diren legegintza-neurri berriak ere, BBK OFFaren programazioek osorik edo zati batean normaltasunez funtzionatzea ezinezko egiten badute; eta horregatik ez du alde batek besteari kalte-galeren izenean ezelango kalterik erreklamatzeko eskubiderik izango, kontuan izanda hitzarturiko kontratua betetzea eragozten duten kausak gertatu direla, bi

alderdiei hori ezinezko egiten dieten eta beraien esku ez dauden arrazoiengatik.

- 15.** Proposamenak aurkezteak sortzaileen aldetik oinarri hauek onartzea dakar berekin. Anomalia frogagarririk atzemanaz gero, BBK Salak baztertu egingo ditu ukitutako proposamenak.
- 16.** Zalantzak argitu edo argibideak eskatzeko, jarri harremanetan helbide elektroniko honen bidez: [bbkoff@gmail.com](mailto:bbkoff@gmail.com).